



## **Idazkaritza-Kontuhartzaitza**

2022/02/22an      EGINDAKO      OHIKO  
UDALBATZA.

SESIÓN ORDINARIA      DEL PLENO DE LA  
CORPORACIÓN. Día 22/02/2022 .

### BERTARATUAK- ASISTENTES

#### Alkate-Udalburua

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

#### Zinegotziak

Maite Uribe Beristain  
Antonio Regaño Sájeras  
Josu Ezkurdia Santamaría  
Ana Belén de Castro Ramos  
Eluska Irazu Henández  
Nestor Arana Arexolaleiba  
Dorleta Sologaistoa Aguiriano  
Leire San Vicente Carrillo

#### Idazkaria

#### **EDURNE ITURBE LASKURAIN**

Eskoriatzan, 2022ko otsailaren 22an, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Ohiko Udalbatza, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri María Purificación Regidor Varela eta Ander Errarte del Pozo

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 22 de febrero de 2022 , en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten María Purificación Regidor Varela y Ander Errarte del Pozo

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAACB8VK.MYBm>

**Ohiko Osoko Bilkura**  
Pleno Ordinaria  
2022/02/22

### **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

2022/01/25ean egindako osoko bilkurako akta onartu da.

### **2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.**

2022ko urtarrilaren 15etik 2022ko otsailaren 15era arte Alkateak hartutako erabakien berri eman da.

### **3.- UDAL LANGILEEN ORDAINSARIEN IGOERA.**

2022. urterako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legearen 18. artikuluan jasotakoaren babesean, eta Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzailearen diktamenarekin bat etorritik, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin onartzea Udal honen zerbitzura dauden langileen ordainsarien % 2ko igoera 2021eko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko.

**Bigarrena.-** Igoera horiek otsaileko nominan ordaintzea.

### **4.- ESKORIATZAKO UDALEKO GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMA.**

Onartzeko proposatzen den Planaren edukia ikusita, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenarekin bat, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak erabaki du Eskoriatzako Udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Plana onartzea.

### **5.- 1/2022 ZENBAKIKO KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA: (Transferentzia)**

Udal honetako aurrekontuan eragina duen kredituak aldatzeko 1. espedientearen berri eman da. Kreditu aldaketa aurrekontuetako gastu partiden arteko kreditu transferentzia bidez egingo da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Toki Erakundeen Aurrekontu erregelamendua onartzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 28 a) eta 29 artikuluetan ezarritako betebeharrei.

Era berean, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako aldeko txostena eta onespren proposamena irakurri dira.

Eztabaidaren ondoren bozketa egin da, eta Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Udal honetako aurrekontuari dagozkion kredituak aldatzeko 1. espedientea onartzea, horretarako egindako proposamenean zerrendatzen diren aurrekontuetako gastu partiden arteko transferentzia bidez, eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera.

**Kredituak transferituko dituzten gastu partidak (bajak)**

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0100.420.419.00.01 2022	DIRU LAGUNTZA:GOILARRE PROGRAMA	21.560,00	8.500,00	13.060,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>21.560,00</b>	<b>8.500,00</b>	<b>13.060,00</b>

**Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)**

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0300.471.231.92.01 2022	DIRU LAGUNTZA: P.J.ARANA.UR HORNIDURA	0,00	8.500,00	8.500,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>0,00</b>	<b>8.500,00</b>	<b>8.500,00</b>

\* Aurrekontu partida berriak sortu ahal izango dira.

**Bigarrena.-** Egintza hau irmoa eta exekutiboa izanik, Fondoak Interbenitzeko Zerbitzuak, bestelako tramite barik eta berehalako eraginarekin, kontabilitatean adieraziko du onartutako kreditu aldaketa.

**6.- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINTZEKO AURREIKUSITAKO EPEAK BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua).**

Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa betez, Udalak obligazioak ordaintzeko hartutako epeak 2021eko laugarren hiruhilekoan betetzeari buruz diruzaintzak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 9 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

**7.- IDAZKARITZAK-KONTUHARTZAILTZAK JARRITAKO ERAGOZPENAK.**

Udal honetako Idazkaritza-kontuhartzaitzak legezkontasun hainbat eragozpen jarri dizkienez Alkatetzak 2021eko irailaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra arte hartutako erabakiei, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratua onesten duen martxoaren 5eko 2/204 Legegintzako Errege Dekretuko 218. artikuluan ezarritakoaren arabera, txostena aurkezten zaio Udalbatzarrari eragozpen horien aurka hartutako erabakien berri emateko.

Ondoren labur azaltzen dira Udalbatzarrak izandako erabakien eta eragozpenen berri:

*1.- KULTURA ARLOARI EMANDAKO KUTXAKO N°27/2021 ZENBAKIKO AURRERAKINAREN JUSTIFIKAZIOARI EGINDAKO ERAGOZPEN TXOSTENA (FAKTURAK FALTA DIRA EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT)*

*2.- BUZONEOA DELA-ETA BAT EZ DATOZEN BI FAKTURENGATIK ERAGOZPEN TXOSTENA.*

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 9 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

**8.- ESKORIATZAKO UDALAREN TITULARITATEKO HAINBAT UDAL ERAIKIN ETA LOKAL GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUAREN BIGARREN LUZAPENA.**

Udalbatzarrak, 2020ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, ESKORIATZAKO HAINBAT UDAL ERAIKIN ETA LOKALAK GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO kontratua HEMEN GARBIKETAK S.L.U. enpresari esleitzea erabaki zuen ondoren adieraziko diren prezioetan eta baldintza administratibo partikularretan ezarritako gainerako baldintzen eta kontratistak bere proposamenean egindako zehaztasunen menpe.

Prezioak:

- A) Kontratuaren urteko prezioa, BEZ barne, baldintza agirian zehaztutako derrigorrezko zerbitzuei dagokienez, 138.052,60 eurokoa (BEZ gabe) gehi BEZaren % 21ari dagozkion 28.991,05 eurokoa da.

Ordainketa administrazio baldintza partikularren agirian jasotzen den bezala egingo da.

Prezio hori honela banatuta dago eraikinka:

- BEZ gabe honela banakatzen da eraikinka urteko:

Luis Ezeiza Herri Eskola	33.280,80
Haurreskola (biblioteca barne)	20.364,40
Kulunka Haurtzaindegia (eraikin oktagonala)	11.250,40
Ibarraundi Museoa	14.660,80
Zaldibar	3.018,40
Ludoteka	3.694,60
EPA	1.744,40
Elkarteen txokoa	1.293,60
Geltoki zaharra	1.156,40
Artxiboaren lokala	235,20
Kiroldegia	38.200,40
Kiroldegiko garajeak	627,20
Pilotalekua	7.487,20
Komun publikoak	1.038,70
Gaztelekua	138.052,60

B) Aukerako zerbitzuei dagokienez, kontratuaren prezioa honela ezarrita gelditzen da:

ZENTROA	URTEKO KOSTUA GUZTIRA
Kultur Etxea	2.116,80

Musika Eskola	1.411,20
Udaletxea	3.822,00

C) Garbiketa bereziak egiteko aukerako zerbitzuei dagokienez, kontratuaren prezioa honela ezarrita gelditzen da:

ZENTROA	ZERBITZUAREN KOSTUA
Ibarraundi	58,80
Zaldibar	39,20
Pilotalekua	235,20
Udal etxebizitzak (etxebizitzako)	235,20
Kultur etxea	39,20

Kontratuaren iraupena URTEBETEKOA zen 2020ko martxoaren 25etik kontatzen hasita, eta beraz, 2021eko martxoaren 24ra arte izango du indarraldia. Kontratua luzatzeari dagokionez, baldintza ekonomiko-administratiboan agirian ezarritakoa jarraituko da.

Udalbatzarrak, 2021eko otsailaren 23an, URTEBETEZ luzatu zuen HEMEN GARBIKETAK S.L.U. enpresari esleitutako kontratua. (1. luzapena)

2022ko urtarrilaren 11ko datarekin, Jose Antonio Ponferrada jaunak, HEMEN GARBIKETAK S.L.U. enpresaren izenean eta ordezkari gisa, idazkia aurkeztu du Eskoriatzako Udaleko Garbiketa Zerbitzu Orokorren kontratua 2022ko martxoaren 24tik aurrera URTEBETEZ luza dadin eskatzeko, hau da, 2022ko martxoaren 25etik 2023ko martxoaren 24ra.

Baldintza administratibo partikularren agiriko 3. baldintzaren arabera, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 29. artikuluan xedatutakoa kontuan harturik, kontratu hau beste hiru urtez luzatu ahal izango da, baina, kontratuak, guztira, ezingo du BOST URTE baino gehiago iraun. Luzapenak urtebetekoak izango dira eta berariaz erabaki beharko ditu kontratazio organoak. Derrigorrezkoak izango dira enpresariarentzat, betiere, kontratua amaitu baino bi hilabete lehenago abisatuz gero eta ez bada gertatzen 2017ko SPKLren 29. artikulua 2. idatz-zatiaren azken paragrafoan jasotako egoera.



Eskaera aztertuta, komenigarritzat jo da kontratua luzatzea esandako eperako, eta Hirigintza eta Ingurumen batzorde informatzaileak horrela proposatu du.

Egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** HEMEN GARBIKETAK enpresari HAINBAT UDAL ERAIKIN GARBITZEKO ZERBITZU PUBLIKOA EMATEKO esleitutako kontratua URTEBETEZ luzatzea (2. luzapena), hau da, 2023ko martxoaren 24ra arte, baldintza agiriaren hirugarren baldintzan ezarritakoaren arabera.

#### BOZKETA BAINO LEHEN ESANDAKOAK:

\* Josu Ezkurdiak esan du bigarren luzapena izango litzatekeela, egia dela batzordean abstentzio bat egon zela, eta gero, nahi badu, Nestorrek azalduko duela. Adierazi du luzatzea proposatzen dutela, joan den urtean lan ona egin zelako kontratazioa arautzen duten baldintza-agiriekin, gizarte eta ingurumen arloko gaiak sartu zirela eta agiri egokiak direla. Gaineratu du, urtean zehar hobetzeko proposamenak egiten badira eta agiritan aldaketak egitea beharrezkoa dela ikusten bada, berriz ere lizitaziora ateratzea planteatu daitekeela; baina, azkenean, baldintza-agiriak egokiak direla, lizitazio berri bat egiteko prozesua luzea dela eta horretarako arrazoi teknikorik ez dagoela ikusita, luzatzea planteatzen dela.

\* Nestorrek esan du abstenitzeko arrazoia izan zela denbora gehiago behar zutela gaia aztertzeko, eta, aztertuta eta luzatzeko emandako arrazoiak ikusita, luzapenaren alde bozkatuko dutela.

#### **9.- ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUAREN HIRUGARREN LUZAPENA.**

Udalbatzarrak, 2018ko abenduaren 4an egindako bilkuran, ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA EMATEKO kontratua FERROVIAL SERVICIOS S.A. enpresari esleitzea erabaki zuen 102.192,29 eurotan urteko gehi BEZari dagozkion 21.460,38 eurotan.



Kontratuaren iraupena URTEBETEKOA zen 2019ko apirilaren 1etik kontatzen hasita, eta beraz, 2020ko martxoaren 31n amaitu zen bere indarraldia. Kontratua luzatzeari dagokionez, baldintza ekonomiko-administratiboen agirian ezarritakoa jarraituko zen.

Udalbatzarrak, 2020ko urtarrilaren 27an, URTEBETEZ luzatu zuen FERROVIAL SERVICIOS S.A. enpresari esleitutako kontratua. (1. luzapena)

2021eko otsailaren 23an beste URTEBETEZ luzatu zuen kontratua Udalbatzarrak (2. luzapena).

2021eko abenduaren 20an, Udalbatzarrak jaso zuen CESP, COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A. enpresa FERROVIAL SERVICIOS S.A. enpresaren ondorengoa izango dela 2018ko abenduaren 4an ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTZEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA emateko esleitutako kontratuan.

Joseba Koldo Nieto Martin jaunak, CESP, COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A. enpresaren izenean eta ordezkartzan, idazkia aurkeztu zuen 2021eko abenduaren 20an ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTZEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUAREN kontratua 2022ko apirilaren 1etik aurrera URTEBETEZ luzatu dadin eskatzeko.

Baldintza administratibo partikularren agiriko 3. baldintzaren arabera, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 29. artikuluan xedatutakoa kontuan harturik, kontratu hau beste 2 urtez luzatu ahal izango da, baina, kontratuak, guztira, ezingo du BOST URTE baino gehiago iraun. Luzapenak urtebetekoak izango dira eta berariaz erabaki beharko ditu kontratazio organoak.

Eskaera aztertuta, komenigarritzat jo da kontratua luzatzea esandako eperako, eta Hirigintza eta Ingurumen batzorde informatzaileak horrela proposatu du.

Egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTZEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA emateko CESP, COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A. enpresari

**Ohiko Osoko Bilkura**  
Pleno Ordinaria  
2022/02/22





esleitutako kontratua URTEBETEZ luzatzea (3. luzapena), hau da, 2023ko martxoaren 31ra arte, baldintza agiriko hirugarren baldintzan ezarritakoaren arabera.

#### **10.- ESKORIATZAKO KALEAK GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUAREN HIRUGARREN LUZAPENA.**

Udalbatzarrak, 2018ko uztailaren 24an egindako bilkuran, ESKORIATZAKO KALEAK GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO kontratua CESPА, COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A. enpresari esleitzea erabaki zuen ondoren esango diren prezioetan eta baldintza administratibo partikularren agiriko gainerako baldintzen eta kontratistak bere proposamenean jasotako zehaztapenen menpe.

Prezioak:

- Derrigorrezko zerbitzuak: 153.459,25 euro gehi % 10eko BEZari dagozkion 15.345,93 euro.
- Aukerako zerbitzuak: 79,99 euro gehi % 10eko BEZari dagozkion 8 euro.

Kontratuaren iraupena URTEBETEKOA zen 2019ko martxoaren 1etik kontatzen hasita, eta beraz, 2020ko otsailaren 28an amaitu zen. Kontratua luzatzeari dagokionez, baldintza ekonomiko-administratiboen agirian ezarritakoa jarraituko zen.

2020ko urtarrilaren 27an URTEBETEZ luzatu zuen kontratua Udalbatzarrak (1. luzapena).

2021eko otsailaren 23an beste URTEBETEZ luzatu zuen kontratua Udalbatzarrak (2. luzapena).

2021eko abenduaren 29ko datarekin, Joseba Koldo Nieto Martin jaunak, CESPА, S.A. enpresaren izenean eta ordezkartzan, idazkia aurkeztu zuen ESKORIATZAKO KALEAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN kontratua URTEBETEZ luza dadin eskatzeko.

Baldintza administratibo partikularren agiriko 3. baldintzaren arabera, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 29. artikuluan xedatutakoa kontuan harturik, kontratu hau beste 2 urtez luzatu ahal izango da, baina, kontratuak, guztira, ezingo du BOST URTE baino gehiago iraun. Luzapenak urtebetekoak izango dira eta berariaz erabaki beharko ditu kontratazio organoak.



Eskaera aztertuta, komenigarritzat jo da kontratua luzatzea esandako eperako, eta Hirigintza eta Ingurumen batzorde informatzaileak horrela proposatu du.

Egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** CESPA, COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A.-ri ESKORIATZAKO KALEAK GARBITZEKO esleitutako kontratua URTEBETEZ luzatzea (3. luzapena), 2023ko otsailaren 28ra arte, baldintza agiriko hirugarren baldintzan ezarritakoaren arabera.

#### HITZA HARTU ETA ESANDAKOAK

- Nestor Arana kexu da ibaia plastikoz beteta dagoelako, eta plastiko horiek kaletik erortzen direla esan du, eta aurreko baldintza-agirietan gai hori jaso gabe geratu zela. Esan du alde bozkatuko dutela, baina kontu horretan badagoela zer landu.
- Josu Ezkurdiak jakinarazi dio garbiketarekin lotutako gaia den arren ez duela kontratu honekin zerikusirik, ibaia garbitzeko lanak beste enpresa batek egiten baititu. Adierazi du aurreko legegintzaldian akordio batera iritsi zirela Ur Agentziarekin, eta bertan Udalaren eta Ur Agentziaren erantzukizunak zehazten zirela. Garbiketa bi urtean behin egitea erabaki zen: 2018an egin zen, eta 2020an tokatzen zen berriz, baina pandemia zela eta, ezin izan zela egin, eta aurtengo aurrekontuetan 5.000-6.000 euroko partida dagoela aurreikusita garbiketa lan horiek egiteko.

#### **11.- DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN 1/2022 ALDAKETA.**

Udalbatzarrak, 2019ko abenduaren 17an egindako bilkuran, 2020-2023 dirulaguntzen plan estrategikoa onartu zuen.

Plana onartuta, komenigarria ikusi da planaren 2022-eranskinean jasotako aurreikuspenetako batzuk aldatzea LERRO ESTRATEGIKOETAKO dirulaguntza programa batzuen eremu subjektiboa edota objektiboa zabaltzeko edo aldatzeko.

Aldaketa horiek honako hauek dira:

A.- 3. LERRO ESTRATEGIKOAN: “GIZARTE EKINTZA” JOSE ARANA PATRONATUARENTZAKO DIRULAGUNTZA -Ur hornidura- fundazioaren gastu arrunta gutxitzeko asmoz, ur sarea egokitzea.

**Ohiko Osoko Bilkura**  
Pleno Ordinaria  
2022/02/22



B.- Programa hori finantzatu ahal izateko, 8.500 eurotan murriztea 8. LERRO ESTRATEGIKOA: LANDA GUNEEN SUSTAPENA LERRO ESTRATEGIKOAREN GOILARRE PROGRAMAN aurreikusitako finantzazioa.

Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** GIZARTE EKINTZA 3. LERRO ESTRATEGIKOAN JOSE ARANA PATRONATUARI DIRULAGUNTZA EMATEKO PROGRAMA SORTZEA- ur hornidura-sarearen egokitzapena.

HARTZAILEA: Jose Arana Patronatuaren Fundazioa.

HELBURUA: Ur hornidura eta sarearen egokitzapena ur-kontsumoa irakurri ahal izateko.

LORTU GURA DENA: Jose Arana fundazioak ostatu alternatiboa eskaintzen die, inolako irabazi asmorik gabe, zenbait gorabeherengatik beraien etxeetan bizitzen jarraitu ezin duten edo jarraitzerik nahi ez duten adineko pertsoneri. Eta, Eskoriatzako Udalak bereziki garrantzitsutzat jotzen du eskoriatzarren ongizaterako fundazioak bere jarduerarekin jarraitzea eta duen gastu arrunta ordaintzen laguntzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Izenduna gauzatan, ur horniduraren kasuan; eta, izenduna dirutan, ur-kontsumoa irakurri ahal izateko sarea egokitzeko lanak egiteko.

2022ko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 8.500 euro.

**FINANTZIAZIOA:** 0300.471.231.92.01.2022

**BIGARRENA.-** 8. LERRO ESTRATEGIKOA: LANDA GUNEEN SUSTAPENA LERRO ESTRATEGIKOAREN GOILARRE PROGRAMAN aurreikusitako finantzazioa MURRIZTEA.

HARTZAILEA: ETORLUR GIPUZKOAKO LURRA SA

HELBURUA: Aizkorri-Aratz Parkeko mendietan, Eskoriatzako udalerrian, erabilera publikora bideratutako larreen kudeaketa hobetzeko jarduketan ondoriozko gastuak ordaintzea (sasiak kentzea, bideak, ur-hartuneak, ur-biltegiak, askak, eskortak, txabolak, itxiturak, erreketak, ongarriak, hainbat egokitzapen, proiektuak idaztea, habitatak kontserbatzea, etab.).

LORTU GURA DENA: Eskoriatzako landa-ingurunea bultzatzea larreen kudeaketa iraunkorraren bidez.

DIRULAGUNTZA MOTA: izenduna.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 13.060 €

FINANTZIAZIOA: 0100.422.419.00.01 partida

**Ohiko Osoko Bilkura**  
Pleno Ordinaria  
2022/02/22

## **12.- LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA FINANTZATZEKO.**

Onartu dadin, Etxez Etxeko zerbitzua finantzatzeko Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak proposatzen duen hitzarmena ikusi eta aztertu da.

Egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Etxez etxeko zerbitzua finantzatzeko proposatutako lankidetzaz hitzarmena sinatzea Gipuzkoako Foru Aldundiarekin.

**Bigarrena.-** Alkate jaunari ahalmena ematea aipatutako hitzarmena Udalaren izenean eta ordeztatzeko.

## **13.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA UDAL ZERBITZUA EMATEKO EGINDAKO KONTRATUAREN HIRUGARREN LUZAPENA.**

Udalbatzarrak, 2018ko abenduaren 11n egindako bilkuran, ESKORIATZAN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA EMATEKO kontratua GIZADI LAGUNTZA ZERBITZUAK S.A. enpresari esleitzea erabaki zuen ondoren esango diren prezioetan eta baldintza administratibo partikularren agiri gainerako baldintzen eta kontratistak bere proposamenean jasotako zehaztapenen menpe.

Prezioak:

Lanegunetako orduaren prezioa: 21 € + BEZ.

Jaiegunetako orduaren prezioa: 25 € + BEZ.

Baldintza administratibo partikularren agiriaren arabera, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 29. artikuluan xedatutakoa kontuan harturik, kontratu honek URTEBETEKO iraupena zuen 2019ko urtarrilaren 16tik kontatzen hasita, eta beste 4 urtez luzatu ahal izango da, baina, kontratuak, guztira, ezingo du BOST URTE baino gehiago iraun. Luzapenak urtebetekoak izango dira eta berariaz erabaki beharko ditu kontratazio organoak. Derrigorrezkoak izango dira enpresariarentzat, betiere, kontratua amaitu baino bi hilabete lehenago abisatuz gero eta ez bada gertatzen 2017ko SPKLren 29. artikulua 2. idatz-zatiaren azken paragrafoan jasotako egoera.

Udal zerbitzu teknikoek jakinarazi dute komeni dela kontratuaren hirugarren luzapena egitea aipatutako eperako.

Berlaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:



**LEHENENGOA.-** ESKORIATZAN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA emateko GIZADI LAGUNTZA ZERBITZUAK S.A. enpresari esleitutako kontratua luzatzea hirugarren aldiz. Luzapena URTEBETEKOA izango da.

#### **14.- OLAZAR JUBILATU ETXEKO TABERNA-ARETO ZERBITZUA USTIATZEKO ESKUBIDEAREN ESLEIPEN KONTRATUAREN BOSGARREN LUZAPENA.**

Udalbatzarrak 2012ko otsailaren 16an hartutako erabakiz, Eskoriatzako jubilatuen etxeke taberna-areto zerbitzua erabiltzeko eta ustiatzeko kontratua esleitu zitzaion Juan Luis Eraña Altuna jaunari. Kontratuaren hasierako iraupena 2 urtekoa zen.

Kontratuaren hirugarren baldintzaren arabera, epe hori 2 urtez luza daiteke, behin eta berriz jarraian, guztira 20 urte egin arte kontratuko epea eta luzapenak kontatuta.

Kontratuak bi urteko hiru luzapen izan ditu orain arte, eta, beraz, otsailaren 29an beteko du 10 urteko indarraldia.

Luzapena berariaz erabaki beharko du kontratazio organoak, kasu honetan, Udalbatzarrak.

Kontratua kudeatzeko ardura duen zerbitzuak txostena egin du, eta bertan esaten du onuragarri ikusten duela kontratuaren beste luzapen bat egitea.

Era berean, proposatutako luzapenarekin kontratista ados dagoela jasotzen da.

Aurrez esandako guztian oinarrituz, Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Eskoriatzako jubilatuen etxeke taberna-areto zerbitzua erabiltzeko eta ustiatzeko kontratua BI URTEZ luzatzea 5. aldiz, kontratuaren hirugarren baldintzan eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.

#### **15.- UDAL ORTUAK ERABILTZEKO BAIMENA ARAUTZEKO ERREGELAMENDUA ONARTZEA.**

Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta batzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Hasiara batean onartzea UDAL ORTUAK ERABILTZEKO BAIMENA ARAUTZEKO ERREGELAMENDUA.

**BIGARRENA.-** Erabaki hau jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez, horretarako iragarkiak jarri Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udal honetako iragarki oholean eta webgunean, interesdunek erreklamazioak eta eragozpenak jarri edo oharrak egin ditzaten. Erreklamaziorik, eragozpenik edo oharririk aurkezten ez badira, hasierako onarpena behin betikotzat joko da automatikoki.

**HIRUGARRENA.-** Alkate-Udalburuari ahalmena ematea hasierako erabakia behin betiko bihurtzeko erabaki bidez, betiere, erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada.

**MARTXOAREN 8a DELA-ETA, EUDELEK ESKATUTA ESKORIATZAKO EAJ/PNV-K AURKEZTUTAKO ERAKUNDE ADIERAZPEN PROPOSAMENA: BERDINTASUNAREN LEGEA BERRITZEA, BERDINTASUNAREN ALDEKO KONPROMISOA INDARTZEA**

Hitza emanda, ondorengoek hitz egin dute:

- Josu: gertu dugun martxoaren 8rako gure planteamendua EUDELEk proposatzen duena onartzea da; izan ere, beti bezala, udalen adostasun instituzionaletik datorrela uste dugu, baina EH BILDUK, gero azalduko dituzten arrazoiengatik, bi gai sartzea proposatu zuen; guk, ordea, azalduko arrazoiengatik, ez dugu testua aldatu nahi izan eta horregatik aurkeztu dugu mozio gisa. Hala ere, bata edo bestea onartzen bada, edo biak, uste dut garrantzitsuena dela adieraztea elkarlanean egin dugula lana, eta denok dugula jarrera bera gai honen aurrean.
- Eluska Irauzu: lehenik eta behin, zuen eskaintza eskertu gura dugu, baina gu, beste batzuetan bezala, gai horretan inplikaturik dauden herriko taldeekin harremanetan jarri ginen. Feministen taldearekin harremanetan jarri ginen, EUDELEn testua eta dena erakutsi genien, eta, nahiz eta oso denbora gutxi izan, aurkezten diren bi proposamen horiek atera ziren gogoeta gisa: zainketa-mahai bat martxan jartzea eta ahalduz indibidualerako eta kolektiborako ekintzak bultzatzea. Pandemiak erakutsi digu zein garrantzitsua den elkarren zainketa. Ikusi dugu sortu diren zainketa-premien aurrean emakumeak izan direla hor ordu gehien sartzen egon direnak, kobratzen eta kobratu gabe.
- Josu Ezkurdia: arestian esan dizuegun bezala, interesgarriak iruditzen zaizkigun, eta hasiera batean kontra ez gauden proposamen horiek uste dugu batzorde batean aurkeztu behar direla, eta ez osoko bilkura batean; batzorde batean, lan-foroa delako eta bertan udal-teknikarien laguntza dugulako horien bideragarritasuna baloratzeko. Horregatik, uste dugu Osoko Bilkura ez dela proposamen horiei heltzeko lekua, aldez aurreko azterketa eta lana behar dutelako teknikarien laguntzarekin. Guk hemen ezetz bozkatuko dugu, baina proposamen horiek egingo den lehenengo batzordera eramatera gonbidatzen zaituztegu.
- Leire San Vicente: EAJ/PNVren planteamendua zuzena iruditzen zait, ados nago proposamen horiek batzorde batean aztertzearekin eta horretarako kontatu Elizateen parte-hartzearekin; eta horregatik EAJ/PNVren mozioaren alde bozkatuko dugu.

Eztabaida amaituta, bozketa egin da, eta aldeko 6 botorekin (EAJ/PNVren 5 eta EEEren 1) eta bertaratutako EHBILDUREN 3 zinegotziak aurka bozkatuta, ondoren osorik transkribatzen den mozioa onartu da.

## **Berdintasunaren Legea berritzea, berdintasunaren aldeko konpromisoa indartzea**

Urtero bezala, martxoaren 8an, emakumei historikoki usurpatu zaizkien eskubideak lortzeko egindako borroka anitzen esanahia gogora ekarri eta aldarrikatu nahi dugu. Borroka horiek, zalantzarik gabe, emakumeen bizitzako hainbat arlotan aurrerapen handiak lortzen lagundu dute, eta emakumeen elkarten eta mugimendu feministaren ekarpenik gabe ez ziratekeen posible izango. Norbanakoen, kolektiboen eta erakundeen arteko elkarlana da, nork bere eragin- eremutik abiatuta, indarrak batuz eta estrategiak partekatuz helburu bera izanik jomuga: emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzea. Gaur egun ere, bide luzea dugu egiteko emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra lortzeko, eta, horregatik, ezinbestekoa da emakumeen eguna aldarrikatzen jarraitzea.

Esparru horretan, Eusko Legebiltzarrean Berdintasunerako 4/2005 Legearen Aldaketa onartzeari balioa eman behar zaio, berdintasunaren alde eta indarkeria matxistaren aurka jauzi kualitatiboa egitea ahalbidetuko duen arau-esparrua eraikitzeko testuinguru egokian sustraituta baitago.

Badakigu gaur egun gure herri eta hirietan berdintasunarekin gero eta sentsibilizazio handiagoa duten herritarrak ditugula, emakumeenganako indarkeriaren aurkako neurriak gero eta gehiago eskatzen dituztenak. Horregatik, lege berri hau aukera bikaina da gizartearen aldarri horri eta erakundeek herritarren aurrean duten konpromisoari erantzun dion tresna bat emateko.

Berdintasunerako legearen aldaketa dator, zeinak berdintasun-politikak indartzea ekarriko duen, eta, beraz, gizarte bidezkoago eta berdinzaleago baterantz aurrera garamatzana.

Hori guztia emakumeen eta gizonen berdintasuna, giza eskubidea izateaz gain, demokrazian sakontzeko eta euskal gizarte kohesionatuagoa, inklusiboagoa eta sozialki eta ekonomikoki jasangarriagoa eraikitzeko behar estrategikoa dela sinetsita.

Eta gizarte gisa dugun erronka honetan, toki-erakundeok arau-esparru berriak dakarren erronka handiari ahalik eta erantzun onena emateko aukera dugu, betiere herritarrekin eta tokiko elkarte eta mugimendu feministarekin lankidetzan estuan.

Toki entitateek berdintasunarekin eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizartearen eraikitzearekin duten konpromisoa argia izan da. Azken 15 urteetan, eta 4/2005 Legeari erantzunez, Euskadiko udalak egiturak, aurrekontuak eta sarea sortuz joan dira Berdintasunarekin, tokiko komunitateen eta euskal herritar guztien beharrei eta eskaerei erantzuteko. Aldi berean, beharrezkoa da aurrera egiten jarraitzea, hobetzen jarraitzea eta udalerriei, batez ere txikienei, erronka horiei aurre egiteko tresnak ematea.

Honako hauetan sakondu behar dugu: politika publiko guztietako berdintasunaren zeharkakotasunean; emakumeen ahalduz; zaintza-lanak ikusarazi, baloratu eta

partekatuko dituen gizarte baten eraikuntzan; gizonak berdintasunean inplikatzean; pobrezia feminizazioa gutxitzean; emakumeen sexu-askatasunaren alde; eta hezkuntzan, emakumeentzako bizitza askea eraikitzeko balioak aldatzeko tresnarik eraginkorrena den aldetik.

Horregatik, martxoaren 8an, Eskoriatzako udalak konpromisoa hartu du berdintasunaren arloko politiken eta zerbitzuen diseinuan eta plangintzan aurrera egiteko, dagozkion jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak bultzatzeko eta indartzeko, bai eta arauak, jarraibideak eta gidalerroak egiteko ere, lege honetan eta lege hau garatzeko araudian ezarritakoa beren esku-hartze eremuetara zehazteko eta egokitzeko, eta behar diren baliabideak emateko.

Zehazki, konpromisoa hartu nahi dugu honako erronka hauetan pixkanaka aurrera egiteko:

- Berdintasun-politikak garatzeko **baliabide ekonomikoak, pertsonalak eta teknikoak indartzea.**
- Berdintasunaren aldeko lanean **generoaren eta giza eskubideen** ikuspegia indartzea, bai eta Udaleko arloen arteko koordinazioan ere.
- **Administrazioko langileen berdintasunari buruzko barne-prestakuntza** bultzatzea, oinarrizko, derrigorrezko eta etengabeko **prestakuntza-plana progresiboki planifikatuz.**
- **Emakumeen aurkako indarkeria matxista mota guztien biktimei arreta emateko sistema** zabaltzea, gure eskumenen esparruan, **detekzio goiztiarreko sistemen hobekuntzan** aurrera eginez, **neurri guztien erdigunean biktimen eskubideak eta haien ahalduntzea kokatuz, eta biktimen erreparazio-eskubidearen aitortzea aintzat hartuz.**
- **Ikuspegi intersektionalaren** integrazioan aurrera egitea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko esku-hartze publiko osoaren ikuspegi inspiratzaile gisa.
- **Herritarren sentsibilizazioan** sakontzea, gizartea kontzientziatzeko eta emakumeak ahalduntzeko kanpaina eta programa instituzionalak daudela bermatuz, bereziki gizonak eta haurrak.
- **Berdintasunaren aldeko eta emakumeak ahalduntzeko neurriak osotasunean** garatzen jarraitzea, mugimendu feministaren parte-hartzea bultzatuz eta haien ekarpenak sartuz.
- **Erakundeen akordioak eta koordinazio-sistemak eta -protokoloak** hobetzea eta aldian-aldian eguneratzea.

Martxoaren 8a dela-eta, herritar orori dei egiten diogu udalerrietan antolatutako mobilizazioetan parte har dezan!

## **12.- ESKORIATZAKO EH BILDUK AURKEZTUTAKO ERAKUNDE-ADIERAZPEN PROPOSAMENA: MARTXOAK 8**





Aurkako 6 botorekin (EAJ/PNVren 5 eta EEEren 1) eta bertaratutako EH BILDUren 3 zinegotziek alde bozkatuta, ez da onartu ondoren transkribatzen den mozioa.

#### **MARTXOAK 8.**

#### **ESKORIATZAKO EHBILDU UDAL TALDEAREN ERAKUNDE ADIERAZPENA**

#### **ZIOA:**

Martxoaren 8an, Emakumeon Egunean, orain arte lortutakoa ospatzeko egunetik haratago, honaino iristeko borroka egin duen Mugimendu Feminista eta norbanakoen lana aitortzeko eta aurrera begirako erronkak mahai gaineratzeko eguna da. Ezinbestekoa da eskubideen aldeko borrokan, mugimenduaren antolakuntzak eta interpelazioetatik, jendarte guztia inplikatzeko izan duen eraginaz mintzatzea. Zentzu honetan, instituzio honi dagokion ardura hartzetik aurkezten dugu adierazpen hau.

Esan dugu dagoeneko, pandemiak agerian utzi duela feminismoa aspaldi aldarrikatzen ari zena: bizitza zaugarria eta dependientea da. Bizitzari baldintza duin eta justuetan eustearen aldeko apustua egiteko unea da: horrek begirada feminista eskatzen du erakundeetatik bultzatzen ditugun politika guztietan.

Genero-desberdintasun estrukturalen gorakada errealitate ukaezina da: emakumeek beren gain hartzen jarraitzen dute zaintzen karga gehiena, ordaindua eta ordaindu gabea; eta azken honek gainera, prekarizazio norabidea nabarmen hartu du.

Krisi egoera honi egoki erantzungo dioten erantzun integralak premiazkoak dira, esparru eta maila guztietan, globaletik tokikoraino eta alderantziz. Euskal Herrian, gure eskumen-esparru mugatuan, argi daukagu gure lurraldeetan gure bizitzaren burujabe ez garen bitartean ezin izango ditugula beharrezko aldaketa guztiak bultzatu: hala ere, badaude aukerak bide hori marrazten joateko, sisteman pitzadurak irekitzeko, eta, hain zuzen ere, tokikoa da eremu egokiena.

Horretarako, erakundeak koordinatu behar dira, eta bideak ireki herritarrek erabaki publikoetan benetan eta eraginkortasunez parte har dezaten, batez ere emakume-talde anitzek eta mugimendu feministak. Behar bezala aurre egin behar diogu daukagun erantzukizun publiko handiari, eta hori premisa feministetatik egin behar da, artikulazioa eta parte-hartzea bultzatuz, plan eta programa eraldatzaileak eginez, larrialdiei arreta emanez eta behar diren baliabide guztiak ahalbidetuz.

**Ohiko Osoko Bilkura**  
Pleno Ordinaria  
2022/02/22



Horregatik guztiagatik, Eskoriatzako Udalak honako hau erabaki du:

- Zaintza mahai bat martxan jartzea. Zaintza sistemari buruzko analisia egin eta honen konpromiso kolektiboari heltzeko estrategia publiko-komunitarioak diseinatzeko eta abian jartzeko elkarrizketarako erabakigune bat. Parte hartu beharko dute, besteren artean: udal teknikari eta kargu publikoek, eragile sindikalek, sozialek, mugimendu feministak eta bestelako herri-mugimenduek ere, askotariko arloetakoak, gizarte, hezkuntza, osasuna, kultura, gazteria. Eremu loteslea izan beharko da, politika publiko-komunitarioen diseinua, jarraipena eta ebaluazioa egiteko, eta arreta berezia jarri beharko du parte hartzeko zailtasun handienak dituzten emakumeen kolektiboen beharrak.
- Emakume, nerabe eta neskatuen ahalduntze indibidual eta kolektiborako ekintzak bultzatzea, tokiko eragile feministekin batera.

#### **18.- GALDE-ESKEAK.**

Ez da egon.

Alkateak, bilkura amaitu aurretik, adierazi du bi gauza komentatu nahi dituela: lehenengoa, eskerrak ematea gai zerrendako lehenengo 15 gaietan egondako adostasunagatik; eta, bigarrena, herritar guztiei dei egitea martxoaren 8a dela-eta antolatutako ekitaldi guztietan parte har dezaten.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:20an amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

### **1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.**

Por encontrar conforme es aprobada el acta de la sesión celebrada en fecha 25/01/2022

### **2.-COMUNICACIONES DE LA ALCALDIA**

Se da cuenta de las resoluciones dictadas desde el día 15 de enero de 2022 al 15 de febrero de 2022.

### **3.-INCREMENTO RETRIBUCIONES DEL PERSONAL DEL AYUNTAMIENTO**

Al amparo de lo contemplado en el art. 18 de la Ley 22/2021, de 28 de diciembre ,de Presupuestos Generales del Estado para el año 2022 , y de conformidad con el dictamen de la Comisión Informativa de Personal y Hacienda, por unanimidad , el Pleno ACUERDA:

**Primero:** Aprobar, con efectos 1 de enero de 2022, un incremento del 2%, respecto de las vigentes a 31 de diciembre de 2021, de las retribuciones de todo el personal al servicio de este Ayuntamiento.

**Segundo:** Hacer efectivos dichos incrementos en la nómina correspondiente al mes de febrero.

### **4.-APROBACION DEL PLAN DE RACIONALIZACION DE RECURSOS HUMANOS DEL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA**

Visto el contenido del Plan cuya aprobación se propone, de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA aprobar el Plan de Racionalización de Recursos Humanos del Ayuntamiento de Eskoriatza

### **5.-EXPEDIENTE DE MODIFICACION DE CREDITOS Nº 1/2022: (Transferencia)**

Dada cuenta del Expediente de Modificación de Créditos Nº 1 , mediante transferencia de créditos entre partidas presupuestarias de Gastos que afectan al Presupuesto de este Ayuntamiento.

Se da lectura al Informe emitido por la Secretaria-Interventora quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos

establecidos por los arts. 28 a) y 29 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Guipúzcoa, por el que se aprueba el Reglamento Presupuestario de las Entidades Locales.

Igualmente se da lectura al informe favorable y propuesta de aprobación formulada por la Comisión Informativa de Personal y Hacienda.

Tras la correspondiente deliberación y sometido a votación, por unanimidad el Pleno ACUERDA :

**Primero.-** Aprobar el expediente de Modificación de Créditos, nº 1 , mediante transferencia entre partidas presupuestarias de Gastos que se relacionan en la propuesta formulada al respecto, correspondiente al Presupuesto de este Ayuntamiento y conforme al siguiente resumen por Capítulos.

**Partidas de gasto que transferirán créditos (bajas)**

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0100.420.419.00.01 2022	DIRU LAGUNTZA:GOILARRE PROGRAMA	21.560,00	8.500,00	13.060,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>21.560,00</b>	<b>8.500,00</b>	<b>13.060,00</b>

**Partidas de gasto que recibirán créditos (altas)**

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
